

## BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2017

Bertsolari Txapelketa Nagusiaren XVII. edizioa irailaren 23an hasiko da eta abenduaren 17an amaituko. Bertsozale Elkartek antolatzen duen bederatzigarren txapelketa da honakoa.

14 saiok osatuko dute 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Baigorri abiatuko da eta laugarrenez Barakaldoko Bilbao Exhibition Centren jokatuiko da finala.

43 bertsolarik hartuko dute parte aurtengo edizioan. Horiekin batera, 18 lagunek osatzen dute gai jartzaile taldea eta 20 izango dira epaile lanetan arituko direnak.

Lau urtetik behin jokutzen den Bertsolari Txapelketa Nagusiak oihartzun zabala izaten du. Hala ere, hori bezain inportantea da zurrunbilo horren azpian dagoena zer den begibistatik ez galtzea.

Azken finean, bertsoa da bertsolaritzaren oinarria, hori da Txapelketa Nagusiaren sekretua. Egunez egun, bertsoa herriz herri, plazaz plaza, eskolaz eskola ibiltzen da Euskal Herriko bazter guztietan. Mugimendu zabala eta dinamikoa da bertsolaritzarena, jende asko dago lan horretan inplikaturik. Eta Txapelketa Nagusia etengabeko jarduera horren isla da.



## EZAUGARRI NAGUSIAK

### Parte hartzea

2013ko Txapelketa Nagusiko finalistek eta herrialde bakoitzeko txapelketetan sailkatuek dute aurtengo txapelketan parte hartzeko eskubidea. Guztira 43 bertsolarik hartuko dute parte.

Final laurdenetan 36 bertsolari izango dira kantuan: 2 Arabatik, 10 Bizkaitik, 16 Gipuzkoatik, 5 Nafarroatik eta 3 Lapurdi, Baxenabarre eta Xiberoatik. Finalurrekoetan aurreko edizioko finalistak sartuko dira eta txapeldunak finalean abestuko du.

Unai Iturriagak uko egin dio parte hartzeari, eta aurrekoan finalean aritu zenez, ez da inor sartuko haren orde. Iñaki Gurrutxagak ere uko egin dio, eta Felix Zubiak ordezkatu du.

### Babesleak, laguntzaileak eta iragarleak

Urtero-urtero Bertsozale Elkartearekin hitzarmenak dituzten erakundeak izango dira Txapelketa Nagusia 2017 egitasmoaren babesleak: Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Laboral Kutxa, Kutxa Fundazioa, Euskal Herriko Unibertsitatea, Emakunde, Ikastolen Elkarte, Maier eta Nergroup eta Amasa-Villabonako Udala.

Txapelketako saioak hartzen dituzten udalek ere ezinbesteko laguntza eman dute herri bakoitzeko saioa antolatzerakoan, bertako bertso-eskolekin elkarlanean.

Horrez gain, egitasmoak eskaintzen dituen publizitate euskarriak baliatuko dituzte erakunde eta enpresa askok.

Azkenik, Euskal Herri osoko hedabide laguntzaileak izango ditu Bertsolari Txapelketa Nagusiak, ekimena zabalkundean lagunduko dutenak. Horien ekarpena ere eskertu nahi du Bertsozale Elkarteak.

### Bertsozale Elkarteko bazkideentzako abantailak

Bertsozale Elkarteko bazkideak dira egiten ditugun ekitaldi guztien ezinbesteko sostengua. Horregatik, Bertsolari Txapelketa Nagusi honetan ere gure bazkideei



Bertsozale Elkarte. Subijana Etxea. Kale Nagusia 70. 20150 Amasa-Villabona  
T. (+34) 943 69 41 29 / [komunikazioa@bertsozale.eus](mailto:komunikazioa@bertsozale.eus)  
[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)

esker ona agertu nahi die Bertsozale Elkarteak, txapelketan zehar haietzako hainbat onura eskainiz.

- Saio guztietan prezio berezia izango dute sarreretan.
- Txapelketako bonua soilik bazkideek erosteko aukera.
- Urriaren 2ra arte finalurrekoetako eta finaleko sarrerak Elkarteko bazkideek eros ahalko dituzte bakarrik.

### **Txapelketa interneten**

Elkarren osagarriak diren bi webgune ditu aurtengo Bertsolari Txapelketa Nagusiak.

[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus): Bertsozale Elkartearen webgunean Txapelketa Nagusiak azpiatal berezia du. Txapelketari dagokion informazio osoa izango da bertan: parte-hartzaileei buruzko datuak, sailkapenak, albisteak, saioetako laburpenak... Horrez gain, bertsogintza eta bertsolaritzari buruz hainbat alderdi landuko dituzten adituen gogoetak argitaratuko ditugu astero.

[www.bertsoa.eus](http://www.bertsoa.eus): Ataria erabat beritu zen ekainean eta Txapelketa Nagusiak bere gunea izango du webgunearen barruan: saio guztietan bildutako bertsoaldiak, zuzeneko emanaldiak, parte-hartzaileei egindako elkarrizketak...

Bertsolari Txapelketa Nagusia sare sozialen bitartez ere jarraitu ahal izango da, Facebook, Instagram, Youtube eta Twitterren. #BTN17 traola erabiliko dugu txapelketaren berri emateko.

### **Adituen artikulua, astero**

Bertsolari Txapelketa Nagusiak irauten duen bitartean, bertsogintzari eta bertsolaritzari buruzko artikulua argitaratuko ditugu asteartero txapelketako webgunean. Gaiari ikuspuntu diferentetatik hurbilduko zaizkio ikertzaile, kultura eragile zein nazioarteko adituak. Hauexek dira txapelketako webgunean bere gogoeta idatziko dutenak: Uxue Alberdi, Ainhoa Aizpurua, Arantxa Urretabizkaia, Harkaitz Cano, Lorea Agirre, Xabier Sukia, Eñaut Agirre, Mateu Xuri, Ane Labaka, Josu Goikoetxea, Eider Rodriguez, Ainhoa Agirreazaldegia, Manex Agirre, Martin Aramendi, Joanito Dorronsoro eta Iñaki Aurrekoetxea.



### **Sintonia eta irudia**

Paxkal Irigoien musikariak egin du 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko sintonia. Txapelketako irudia, euskarri eta saioetako azpiegitura guztien garapena, berriz, Lanku Kultur Zerbitzuak enpresak egin du.

### **Hitzetik Hortzera, telebista saio berria eta zuzenekoak**

Txapelketa telebistaz segitzeko aukera ere izango da. Batetik, irailaren 24an hasiko da "Hitzetik Hortzera"-ren denboraldi berria, igandero bazkalostean ETB1en. EITBk eta Bertsozale Elkartek elkarlanean egiten dugun telebistako saio beteranoak Txapelketa Nagusiarri eskainitako saio monografikoak egingo ditu abendura bitartean.

Telebistarekin lotuta nobedade handia dakar Txapelketa Nagusiak. Urriaren 30ean hasita, Txapelketa Nagusiarren inguruko telebista saio berria hasiko da ETB1en. Astelehenero 22:30ean emitituko da, txapelketa amaitzen den arte.

Bestalde, urriaren 28an hasita finalaurreko guztiak zuzenean emitituko ditu ETB4k, Aitzol Barandiaranek eta Uxue Alberdik aurkeztuta.

### **Atzerriko inprobisatzaileak eta ikertzaileak**

Iaz, Mintzola Ahozko Lantegiak Donostia 2016rekin elkarlanean antolatutako "Europa bat-batean" kantu inprobisatuaren nazioarteko topaketari segida eman nahi dio Bertsolari Txapelketa Nagusiak. Hala, azken ediziotan egin bezala, atzerriko inprobisatzaileen eta ikertzaileen bisita espero dugu txapelketaren amaiera aldera. Aurrerago emango ditugu honi buruzko xehetasunak.

### **Bertsolaritzaren azterketa soziologikoa**

1994ean eta 2006an egin zen moduan, 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusia bertsolaritzari buruzko azterketa soziologikoaren inkestak egiteko baliatuko du Bertsozale Elkartek. Mintzola Ahozko Lantegia eta UPV/EHU gauzatuko dute ikerketa eta saioetara hurbiltzen diren bertsozaleen artean egingo dira inkestak. Informazio hori bertsozalearen profila eta haren zaletasunak zein kezak ezagutzeko balioko du.



### **Euskalduntzen ari direnentzako baliabideak**

Euskal kulturaren ekimenik garrantzitsuenetakoa izanik, Bertsolari Txapelketa Nagusiak euskalduntzen ari direnei ere bere ekarpena ere egin nahi die. Txapelketako webgunean atal berezitu bat dago eta bertan txapelketarekin eta bertsolaritzarekin lotutako hainbat dokumentu jarri dugu eskuragai, material didaktiko gisa baliatzeko. Halaber, txapelketak irauten duen bitartean euskalduntzean ari diren erakundeei hainbat emanaldi antolatzeko eskaintza luzatuko diegu.



### Txapeldunak Txapelketaren historian

Urtea	Lekua	Txapelduna
1935	Donostia	Iñaki Eizmendi "Basarri"
1936	Donostia	Manuel Lujanbio "Txirrita"
1960	Donostia	Iñaki Eizmendi "Basarri"
1962	Donostia	Manuel Olaizola "Uztapide"
1965	Donostia	Manuel Olaizola "Uztapide"
1967	Donostia	Manuel Olaizola "Uztapide"
1980	Donostia	Xabier Amuriza
1982	Donostia	Xabier Amuriza
1986	Donostia	Sebastian Lizaso
1989	Donostia	Jon Lopategi
1993	Donostia	Andoni Egaña
1997	Donostia	Andoni Egaña
2001	Donostia	Andoni Egaña
2005	Barakaldo	Andoni Egaña
2009	Barakaldo	Maialen Lujanbio
2013	Barakaldo	Ametz Arzallus



## PARTE HARTZAILEAK

### BERTSOLARIAK



**Agin Laburu Rezola** (Astigarraga, 1985)

Txikitatik hasi zen bertsoan eta, besteak beste, Lizardi, Xenpelar eta Plazatik Gaztetzera sariketak irabazi ditu. Hernaniko bertso eskolako kidea da. Bigarren aldiz kantatuko du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



**Aimar Karrika Iribarren** (Auritz, 1988)

Gaztetan hasi zen bertsoan 18 urte zituenetik hartu izan du parte Nafarroako Bertsolari Txapelketan eta azken hiru edizioetan finalera ailegatu da. Lehen aldiz hartuko du parte Bertsolari Txapelketa Nagusian.



**Aitor Mendiluze Gonzalez** (Andoain, 1975)

Eskolan izan zuen lehen harremana bertsoekin. Hernaniko bertso eskolan aritua da, baita Andoaingoan ere. 1995ean eta 2007an Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa irabazi zuen. Seigarren parte hartzea du Txapelketa Nagusian, eta lautan iritsi da finalera.



**Aitor Sarriegi Galparsoro** (Beasain, 1976)

Lehen plaza 1989an egin zuen, Seguran. Lizardi eta Osinalde sariketak irabazi ditu. 2011n Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa irabazi zuen. Seigarren aldiz kantatuko du Bertsolari Txapelketa Nagusian, eta bi finaletan hartu du parte.



**Alaia Martin Etxebeste** (Oiartzun, 1987)

12 urterekin hasi zen bertsoan eta Oiartzungo, Santutxuko eta Zamalbideko bertso eskoletan aritu da. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan hirugarren egin zuen 2011n eta bigarren 2015ean. Bigarren Txapelketa Nagusia du.



**Amets Arzallus Antia** (Hendaia, 1983)

Etxean bertso giroa zegoen, eta txikitatik hasi zen kantuan. Lau aldiz irabazi du Nafarroako Bertsolari Txapelketa eta hirutan Xilaba. 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusia irabazita, Euskal Herriko txapelduna da. Bosgarren parte hartzea du Txapelketa Nagusian.





**Ander Fuentes Mujika “Itturri”** (Zubieta, 1979)

2006an hasi zen bertsoan eta bi urte geroago hartu zuen parte aurrenekoz Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Gaur egun Leitzako eta Lekunberriko bertso eskolatan aritzen da. 2017koa lehenengo Txapelketa Nagusia du.



**Ander Lizarralde Jimeno** (Oiartzun, 1984)

1997. urtean egin zuen lehen plaza, Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan. Oiartzungo bertso eskolako kidea izan da hasieratik eta bertako irakaslea orain dela 12 urtetik. Lehenengo aldiz hartuko du parte Bertsolari Txapelketa Nagusian.



**Arkaitz Oiartzabal Agirre “Xamoa”** (Oiartzun, 1985)

Etxean aita, osaba eta lehengusua bertsolariak ditu eta haien eraginez bertsozaletu zen. Xenpelar Bertso Eskolan ekin zion bertso ibilbideari eta egun Oiartzungoan ere ari da. Bigarren aldiz hartuko du parte Txapelketa Nagusian.



**Asier Otamendi Alkorta** (Urretxu, 1971)

19 urterekin Gasteizera joan eta han bertsozaletu zen. 1994an egin zuen lehen plaza, Legutian. Arabako Bertsolari Txapelketan lau aldiz izan da txapeladun. Bosgarren parte hartzea du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



**Beñat Gaztelumendi Arandia** (Añorga, 1987)

Etxetik datorkio bertsozaletasuna eta Igeldoko, Hernaniko eta Santutxuko bertso eskolatan aritua da. 2015eko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa irabazita, egungo txapeladuna da. Hirugarren aldiz hartuko du parte Txapelketa Nagusian.



**Beñat Iguaran Amondarain** (Amasa-Villabona, 1988)

Txikitatik datorkio bertsozaletasuna eta hainbat sariketatan parte hartu izan du. Gaur egun Lasarteko eta Tolosaldeko bertso eskolan ari da. Lehenengo aldiz hartuko du parte Bertsolari Txapelketa Nagusian.







**Beñat Lizaso Alberdi** (Azpeitia, 1982)

Etxetik datorkio bertsozaletasuna, ikastolako bertso eskolan egin zituen lehen urratsak eta Eniarraitz bertso eskolan gerora. Lizardi sariketa irabazi zuen 2005ean. Hirugarren aldiz hartuko du parte Bertsolari Txapelketa Nagusian.



**Beñat Ugartetxea Ostolaza** (Mallabia, 1979)

Bertsoa etxetik jaso du, aitaren eta anaiaren eskutik. Bizkaiko Bertsolari Txapelketan finalista izan da 2010ean eta 2016an. Aurtengoa bigarren parte hartzea du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



**Eneko Abasolo Txabarri "Abarkas"** (Iurreta, 1976)

Gaztetatik kultura arloko gauzetan ibilia da, dantza taldean, kultura taldean eta bertso eskolan. Bizkaiko Eskolartekoan egin zuen lehen plaza. Aurtengoa bigarren parte hartzea du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



**Eneko Lazkoz Martinez** (Etxarri-Aranatz, 1983)

14 urterekin hasi zen Etxarriko bertso eskolan. 2004an lehen aldiz hartu zuen parte Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Gaur egun Lekunberriko eta Etxarriko bertso eskoletako kidea da. Estreinakoz hartuko du parte Txapelketa Nagusian.



**Etxahun Lekue Etxebarria** (Larrabetzu, 1979)

Etxeko giroaren eraginez bertsozaletu zen eta hamar urte zituela hasi zen bertso eskolan. Bizkaiko txapelduna da eta Larrabetzuko Itallen bertso eskolako kidea. Laugarrenoz kantatuko du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



**Felix Zubia Olaskoaga** (Zarauz, 1974)

Bere kasa ikasi zuen bertsoan, bertso zaharrak kantatuz. 1998an Zarauzko Motxian bertso eskolan hasi zen eta hurrengo urtean lehen plaza egin zuen. Bigarren aldiz hartuko du parte Bertsolari Txapelketa Nagusian.





**Ibon Ajuriagojeaskoa Garmendia** (Gernika-Lumo, 1977)

Txikitatik bertso giroan murgilduta ibili da eta hamaika urterekin herriko bertso eskolan hasi zen. 2009. urtean hartu zuen parte lehen aldiz Bertsolari Txapelketa Nagusian eta aurtengoa bigarrena izango da.



**Igor Elortza Aranoa** (Durango, 1975)

Umetan ikasi zuen bertsoan, Kurutziaga ikastolan eta Durangoko bertso eskolan. Bost aldiz irabazi du Bizkaiko Bertsolari Txapelketa. Zazpigarren parte hartzea du Txapelketa Nagusian, eta hiru finaletan kantatu du.



**Iñaki Apalategi Astigarraga** (Beasain, 1982)

15 urterekin Goierriko bertso eskolan hasi zen eta gazte mailako hainbat sariketa irabazi ditu. Ordutik plazako jarduna eta txapelketak tartekatu izan ditu. Bigarrenkoz kantatuko du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



**Jon Maia Soria** (Urretxu, 1972)

Bertsoarekin lehen harremana eskolan izan zuen eta Zumaiako bertso eskolan trebatu zen. Xenpelar sariketa irabazi du bitan. Bertsolari Txapelketa Nagusian zazpigarren parte hartzea du, eta lautan kantatu du finalean.



**Jon Martin Etxebeste** (Oiartzun, 1981)

Gazte hasi zen bertsoan eta geroztik sariketa eta txapelketa askotan hartu du parte. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan bigarren egin zuen 2003an. Laugarren aldiz kantatuko du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



**Jone Uria Albizuri** (Getxo, 1990)

Bederatzi urterekin ikastolan hasi zen bertsolaritza lantzen eta 2008an lehenengoz hartu zuen parte Bizkaiko Bertsolari Txapelketan. Algortako Bertsolari Eskolako kidea da. Hirugarren aldiz kantatuko du Txapelketa Nagusian.





**Julio Soto Ezkurdia** (Gorriti, 1987)

Iruñeko bertso eskolan trebatua, hirutan irabazi du Nafarroako Eskolartekoa. Egungo Nafarroako txapelketa da; lau aldiz irabazi du Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Hirugarrenoz hartuko du parte Bertsolari Txapelketa Nagusian.



**Maddalen Arzallus Antia** (Hendaia, 1990)

Etxeko giroan bertsozaletu zen txikitatik eta bederatzirekin hasi zen Hendaia bertso eskolan. Etenaldi baten ondoren, 2014ko Xilaba txapelketan ekin zion berriro. Bigarrenoz hartuko du parte Bertsolari Txapelketa Nagusian.



**Maialen Lujanbio Zugasti** (Hernani, 1976)

Ikastolako bertso eskolan hasi zen bertsoan. Hamabost urterekin ekin zion plazaz plazako ibilari. 2003an Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen eta 2009an Txapelketa Nagusia. Seigarren parte hartzea du Txapelketa Nagusian, eta bost finaletan kantatu du.



**Mikel Artola Izagirre** (Alegia, 1989)

Alegiako Zazpi Astoren Gainean bertso eskolan hasi zen bertsozaleekin zalezen, gero Gasteizen aritu zen eta gaur egun Harituz Tolosaldeko bertsozaleen elkargunean ari da. Lehen aldiz parte hartuko du Txapelketa Nagusian.



**Miren Amuriza Plaza** (Berriz, 1990)

Hamabi urterekin hasi zen bertsoan Berrizko bertso eskolan eta hainbat sari lortu ditu eskolarteko sariketetan. Bertso eskoletan aritu da irakasle; gaur egun Berrizkoan ari da. Hirugarren Txapelketa Nagusia du.



**Miren Artetxe Sarasola** (Hendaia, 1985)

Aitaren eta aitonaaren eraginez eta Hitzetik Hortzera ikusita bertsozaletu zen. Xenpelar eta Orixe sariketak irabazi ditu. Oiartzun, Bartzelona eta Hendaia bertso eskoletan aritu da. Hirugarrenoz kantatuko du Txapelketa Nagusian.





**Nahikari Gabilondo Mendizabal** (Zarautz, 1978)

Hamaika urterekin hasi zen Zarauzko Etxebeltz bertso eskolan. Hamalau urte zituela ekin zion bat-bateko bertsogintzari. Motxian bertso eskolako kidea da egun. Bigarren aldia du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



**Nerea Elustondo Plazaola** (Legazpi, 1981)

Hamahiru urterekin hasi zen bertsotan eta gaur egun Legazpiko Bertso Olariak taldeko kidea da. 2001ean hartu zuen parte lehen aldiz Bertsolari Txapelketa Nagusian eta aurtengoa hirugarren parte hartzea du.



**Nerea Ibarzabal Salegi** (Markina-Xemein, 1994)

Hamabi urterekin hasi zen bertsotan, eta orduz geroztik Eskolarteko hainbat txapelketatan eta gazteen sariketatan kantatu du. Lea-Artibaiko txapeliduna izan zen 2014an. Lehen parte hartzea du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



**Odei Barroso Gomila** (Urruña, 1988)

Bertsotan hamahiru urterekin hasi zen eta geroztik horretan dihardu. Xilaban lehen ediziotik hartu du parte. Poeta, kantaria eta musikaria, 2ZIO rap taldeko kidea ere bada. Hirugarren goz kantatuko du Txapelketa Nagusian.



**Oihana Bartra Arenas** (Bilbo, 1984)

Santutxuko bertso eskolan hasi zen bertsotan. Lehen plaza 1999. urtean egin zuen, eta bitan irabazi du Bizkaiko Eskolarteko Txapelketa. Hirugarren aldiz hartuko du parte Bertsolari Txapelketa Nagusian.



**Oihana Iguaran Barandiaran** (Amasa-Villabona, 1991)

10 urterekin ikastetxean lehen bertsolaritza eskola jaso zuenetik hurbildu zen bertso eskolara eta bertan segitzen du. Harituz Bertsozale Taldeko kidea da. Lehenengoz hartuko du parte Bertsolari Txapelketa Nagusian.





**Oihane Perea Perez de Mendiola** (Gasteiz, 1977)

Hamabi urte zituenean Gasteizko bertso eskolan hasi zen. Egungo Arabako txapelketa da; lau aldiz irabazi du Arabako Bertsolari Txapelketa. Laugarren parte hartzea du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



**Onintza Enbeita Maguregi** (Muxika, 1979)

Umetatik bertso giroan hezia, gaztetatik hasi zen bertsotan. 2006an iritsi zen lehenengoz Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalera, eta harrezkero izan diren final guztietan egon da. Laugarren Txapelketa Nagusia du aurtengoa.



**Sustrai Colina Acordarrementeria** (Urruña, 1982)

Hendaiako bertso eskolan eman zituen lehenengo urratsak eta 1992an egin zuen lehen plaza. Bi aldiz irabazi du Xilaba txapelketa, 2014an eta 2016an. Bosgarren parte hartzea du Bertsolari Txapelketa Nagusian, eta lau finaletan kantatu du.



**Unai Agirre Goia** (Hernani, 1975)

Hamar urterekin hasi zen bertsotan, ikastolan. Bertsolari gazteentzako Lizardi sariketa bitan irabazi du eta behin Orixe sariketa. Hernaniko bertso eskolako kidea da. Bosgarren aldiz kantatuko du Txapelketa Nagusian.



**Unai Gaztelumendi Arandia** (Añorga, 1988)

Bertsolaritzarekiko harremana oso txikitatik hasi zuen, aitaren eskutik. Bertso eskola askotan ibilia da batetik bestera, gaur egun Antiguakoan ari da. Estreinakoz kantatuko du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



**Xabat Galletebeitia Abaroa** (Lekeitio, 1986)

Txikitan ikastolan hasi zen bertsotan. Plazatik Gaztetxera eta Berritxu sariketak irabazi ditu. Markina-Xemeingo eta Lekeitioko Poto bertso eskoletako kidea da gaur egun. Lehenengoz hartuko du parte Txapelketa Nagusian.





**Xabi Maia Etxeberria** (Elizondo, 1981)

Helduaroan hasi zen bertsoan, 2009an Baztango bertso-eskola sortzearekin batera. 2013an hartu zuen parte lehen aldiz Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Lehen aldiz parte hartuko du Txapelketa Nagusian.



### Gai jartzaile taldea



Saioetako gaiak prestatzeaz gain, saioak aurkeztea ere talde honen ardura da. 18 kidez osatuta dago: Aintzane Irazusta Arzallus, Alaitz Rekondo Ferrero, Amaia Castorene Luro, Amaia Ugalde Begoña, Amaiur Lujanbio Agirre, Elisa Almandoz Irigoien, Fernando Anbustegi Goñi, Idoia Anzorandia Kareaga, Iker Iriarte Iribar, Inazio Usarralde Arantzadi, Ion Zaldua Brit, Joana Itzaina Malharin, Maider Ansa Zugarramurdi, Maite Berriozabal Berrizbeitia, Marta Ugarte Abasolo, Oier Suarez Hernando, Pantxika SolorzanoAzarete eta Saroi Jauregi Aiestaran.

### Epaile taldea



20 epailek osatzen dute parte edizio honetako taldea: Ainhoa Aizpurua Insausti, Aitor Jimenez Tolosana, Asier Ibaibarriaga Apoita, Ekaitz Elorriaga Anduaga, Eneko Bidegain Aire, Eneritz Azkue Basurko, Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa, Joakin Arregi Goenega, Jon Abril Olaetxea, Joseba Santxo Uriarte, Jurgi Fuentes



Bertsazole Elkartea. Subijana Etxea. Kale Nagusia 70. 20150 Amasa-Villabona  
T. (+34) 943 69 41 29 / [komunikazioa@bertsozale.eus](mailto:komunikazioa@bertsozale.eus)  
[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)

Goikoetxea, Karlos Iburguren Olalde, Maite Sukia Olano, Martin Aramendi Arana, Mikel Beaumont Arizaleta, Mikel Fernandez de Arroiabe Idigoras, Mikel Lersundi Ayestaran, Mirari Azula Aurrekoetxea, Nerea Bruño Artazkoz eta Zigor Leunda Eizmendi.



Bertsozale Elkartea. Subijana Etxea. Kale Nagusia 70. 20150 Amasa-Villabona  
T. (+34) 943 69 41 29 / [komunikazioa@bertsozale.eus](mailto:komunikazioa@bertsozale.eus)  
[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)



## EGUTEGIA

### Final laurdenak

Irailak 23, larunbata, Baigorri  
Irailak 30, larunbata, Segura  
Urriak 1, igandea, Leitza  
Urriak 7, larunbata, Zalla  
Urriak 8, igandea, Zumaia  
Urriak 14, larunbata, Tolosa

Ezker pareta  
Baratze pilotalekua  
Udal kiroldegia  
Mimetiz pilotalekua  
Aitzuri pilotalekua  
Beotibar pilotalekua

### Finalaurrekoak

Urriak 28, larunbata, Bastida  
Azaroak 1, asteazkena, Irun  
Azaroak 4, larunbata, Maule-Lextarre  
Azaroak 12, igandea, Durango  
Azaroak 19, igandea, Amurrio  
Azaroak 26, igandea, Donibane Lohizune  
Abenduak 2, larunbata, Iruñea

Udal kiroldegia  
Artaleku kiroldegia  
Ororena Jai-Alai  
Landako gunea  
Bañueta kiroldegia  
Jai-Alai  
Anaitasuna kiroldegia

### Finala

Abenduak 17, igandea, Barakaldo

BEC



## FASEAK ETA SAILKAPENAK

Hiru fasetan banatuko da Bertsolari Txapelketa Nagusia: final laurdenak, finalaurrekoak eta finala.

**Final laurdenak.** Hogeita hamasei bertsolari izango dira lehia, denak herrialdeetako txapelketetatik sailkatuak. Sei bertsolariz osatutako sei talde egingo dira eta saio bakarrera lehiatuko dira. Talde bakoitzeko irabazlea zuzenean pasatuko da hurrengo fasera; puntu gehien batzen dituztenekin osatuko da finalaurrekoetara igaroko den taldea.

**Finalaurrekoak.** Hogeita lau bertsolari lehiatuko dira fase honetan: izena eman duten 2013ko sei finalista eta final laurdenetako saioetatik sailkatu diren hemezortzi bertsolari.

Bi itzuli izango ditu finalaurreko faseak: lau finalaurreko izango dira lehenengoan eta hiru bigarrenengan. Bi saioetako puntuazioak gehitu egingo dira, baina lehen itzulian puntu gutxien lortu duten sei bertsolariek bigarren itzulian kantatzeko aukera galduko dute. Taldeak aldatu egingo dira lehen itzulitik bigarrenean.

**Finala.** Zortzi bertsolari lehiatuko dira: 2013ko txapelduna eta finalaurrekoetatik puntuaziaz sailkatutako zazpiak. Hiru saiotan banatuko da ekitaldia: goizean zortzi bertsolariak jardungo dira eta zortzi bertsolariekin emango zaio hasiera arratsaldeko jardunari; azkenean, puntu gehien metatu duten bi bertsolarien arteko lehiarekin emango zaio amaiera. Egun osoko jardunean puntu gehien eskuratu dituen izango da txapeldun.



## FINAL LAURDENAK

### BAIGORRI – Irailak 23 – Ezker pareta – 17:00

Aimar Karrika  
Alaia Martin  
Ander Lizarralde  
Beñat Ugartetxea  
Mikel Artola  
Xabi Maia



### SEGURA – Irailak 30 – Baratze pilotalekua – 17:00

Ander Fuentes "Itturi"  
Beñat Iguaran  
Felix Zubia  
Jon Martin  
Nerea Elustondo  
Unai Gaztelumendi



### LEITZA – Urriak 1 – Udal kiroldegia – 17:00

Agin Laburu  
Iñaki Apalategi  
Julio Soto  
Oihana Bartra  
Oihana Iguaran  
Unai Agirre



### ZALLA – Urriak 7 – Mimetiz pilotalekua – 17:00

Eneko Abasolo "Abarkas"  
Jone Uria  
Miren Amuriza  
Odei Barroso  
Oihane Perea  
Onintza Enbeita



### ZUMAIA – Urriak 8 – Aitzuri pilotalekua – 17:00

Arkaitz Oiartzabal "Xamoa"  
Asier Otamendi  
Ibon Ajuriagojeaskoa  
Miren Artetxe  
Nahikari Gabilondo  
Nerea Ibarzabal



### TOLOSA – Urriak 14 – Beotibar pilotalekua – 17:00

Beñat Lizaso  
Eneko Lazkoz  
Etxahun Lekue  
Jon Maia  
Maddalen Arzallus  
Xabat Gallettebeitia



## SAILKATZE SISTEMA

### FINALAURREKOEN 1. ITZULIRAKO

<b>Bastida 2017-10-28</b>	<b>Irun 2017-11-1</b>	<b>Maule-Lexarre 2017-11-4</b>	<b>Durango 2017-11-12</b>
<b>Igor Elortza</b>	<b>Aitor Sarriegi</b>	<b>Beñat Gaztelumendi</b>	<b>Aitor Mendiluze</b>
<b>Sustrai Colina</b>	<b>Maialen Lujanbio</b>	Zumaiako irabazlea	Zallako irabazlea
Segurako irabazlea	Baigorriko irabazlea	Tolosako irabazlea	Leitzako irabazlea
Puntuazioz 1.a	Puntuazioz 4.a	Puntuazioz 3.a	Puntuazioz 2.a
Puntuazioz 8.a	Puntuazioz 5.a	Puntuazioz 6.a	Puntuazioz 7.a
Puntuazioz 9.a	Puntuazioz 12.a	Puntuazioz 11.a	Puntuazioz 10.a

### FINALAURREKOEN 2. ITZULIRAKO

<b>Amurrio 2017-11-19</b>	<b>Donibane Lohizune 2017-11-26</b>	<b>Iruñea 2017-12-2</b>
Maule-Lexarreko irabazlea	Irungo irabazlea	Durango irabazlea
Bastidako irabazlea	Puntuazioz 2.a	Puntuazioz 1.a
Puntuazioz 5.a	Puntuazioz 3.a	Puntuazioz 4.a
Puntuazioz 6.a	Puntuazioz 8.a	Puntuazioz 7.a
Puntuazioz 11.a	Puntuazioz 9.a	Puntuazioz 10.a
Puntuazioz 12.a	Puntuazioz 14.a	Puntuazioz 13.a

### FINALERAKO

**Barakaldo – 2017/12/17 – BEC**

**Amets Arzallus**

+ puntuazioz zazpi bertsolari



## LANAK

### Final laurdenak - (15 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.  
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.  
Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian.  
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian.  
Kartzelako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

### Finalurrekoak

#### Lehen itzulian - (15 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.  
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.  
Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian.  
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian.  
Kartzelako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

#### Bigarren itzulian - (16 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.  
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.  
Binaka, gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte.  
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian.  
Kartzelako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.



## Finala

### **Goizean - (16 bertso puntuagarri)**

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.  
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.  
Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian.  
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian.  
Kartzelako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

### **Arratsaldean - (10 bertso puntuagarri)**

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean.  
Binaka, gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte.  
Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

### **Buruz burukoan - (11 bertso puntuagarri)**

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.  
Binaka, gaia emanda, launa bertso zortziko txikian.

Kartzelako lana:

Banaka, hitza gaitzat emanda, bertso bat bederatziko txikian.  
Gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.



### SARRERAK

	Sarrerak	Bazkideak	Gazteak
Final laurdenak	12€	10€	6€
Finalaurrekoak	15€	12€	8€
Finala	36€	26€	16€
<b>Bonusak</b>			
Bonua		85€	
Finaleko bazkaria	18€		
Finaleko autobusa	14€		

- Gazteak 6 eta 16 urte artekoak dira.
- Bonuak soilik Bertsozale Elkarteko bazkideek eskuratu ahal izango dituzte, ez du finalerako balio eta bonu kopurua mugatua da.

Sarrerak erosteko bi modu daude:

1- Internetez, guztiz eraberritutako [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian:

- Bertan edozein saiotarako sarrerak erosteko aukera izango da, baita bonuak ere.
- Final laurdenetako sarrerak dagoeneko salgai daude, zale guztientzat.
- Urriaren 2ra arte Bertsozale Elkarteko bazkideek finalaurrekoetako eta finaleko sarrerak erosteko aukera izango dute. Urriaren 2tik aurrera bazkideak ez direnentzat finalaurreko eta finaleko sarrerak egongo dira salgai.

2- Horrez gain, salmenta puntuetan:

- Final laurden eta finalaurrekoetako sarrerak saioa jokatu den herriko salmenta puntuan egongo da salgai.
- Finaleko sarrerak (bazkide eta gazteen sarrerak soilik internetez) ohiko salmenta lekuetan egongo dira salgai urriaren 2tik aurrera.
- Salmenta lekuen zerrenda [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) webgunean dago.

Finalerako autobus zerbitzua eskainiko du Bertsozale Elkarteak, Aizpurua autobusak enpresaren bitartez. Era berean, finalean BECen bertan bazkaltzeko bi aukera izango dira: etxetik eramandakoa edo Iruña Catering enpresak eskainiko duen bazkaria.





## PRENTSA BULEGOA

### Akreditazioak

Txapelketan zehar antolatzen diren ekitaldi eta saioetara sartzeko akreditazioa eskatu beharko dute hedabide eta kazetariak [komunikazioa@bertsozale.eus](mailto:komunikazioa@bertsozale.eus) helbidean.

Saio bakarrerako zein txapelketako saio guztietarako akreditazioak egongo dira.

Finalerako akreditazioak abenduan banatuko dira.

### Kontaktua

Bertsozale Elkarteko Komunikazio Saila  
E-posta: [komunikazioa@bertsozale.eus](mailto:komunikazioa@bertsozale.eus)

Euskal Herriko Bertsozale Elkartea  
Kale Nagusia 70, Amasa-Villabona  
Tel.: (+34) 943 694 129

